

Erronka eko-sozialak eta sindikalismoa: Euskal Herrian sindikatuak berritzeko aukerak?

Eco-social challenges and trade unionism: Opportunities for union renewal in the Basque Country?

Ignacio MESSINA*, Jon LAS HERAS

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Laburpena: Kontrabotere-sindikalismoak hartutako praxia eztabaida berriak sortzen ari da sindikatuak berritzearen inguruan eta sindikatuak eraginkorragoak izateko moduaren inguruan. Artikulu honetan aztertuko dugu nola ikuspegi estrategiko horiek elkarri eragiten dioten eta nola elkar aberasten duten krisi eko-sozialaren aurrean; era berean, borroka ekologistarekiko konpromisoaren bidez berrikuntza bultzatzeko sortzen diren aukerak ere aztertuko ditugu. Hiru euskal sindikaturen (ELA, LAB eta ESK-ren) jarrerak identifikatzean, haien eta beste gizarte-mugimendu batzuen arteko elkar-gune garrantzitsuak aurkitu ditugu, eta horrek politika ekologistak eta gizarte-eragileen arteko aliantza estrategikoak garatzeko esperientzia erabakigarriak ikusten lagundu digu.

Hitz-gakoak: Sindikalismoa, Ekologismoa, Kontrabotere-sindikalismoa, Berrikuntza Sindikala, Euskal Herria

Resumen: La praxis adoptada por el sindicalismo de contrapoder está generando nuevos debates en torno a la renovación sindical y a cómo los sindicatos pueden ser más efectivos. En este artículo exploraremos cómo estos enfoques estratégicos interactúan y se enriquecen mutuamente frente a la crisis eco-social, así como las oportunidades que surgen para impulsar la renovación a través del compromiso con la lucha ecologista. Al identificar las posturas de tres sindicatos vascos (ELA, LAB y ESK), encontramos importantes puntos de convergencia entre ellos y con otros movimientos sociales, lo que nos ayuda a vislumbrar experiencias cruciales para el desarrollo de políticas ecologistas y alianzas estratégicas entre los diversos actores sociales.

Abstract: The praxis adopted by counter-power unionism is generating new debates around union renewal and how unions can be more effective. In this article we explore how these strategic approaches interact and enrich each other in the face of the eco-social crisis, as well as the opportunities that arise to promote union renewal through commitment to the ecological struggle. By identifying the positions of three Basque unions (ELA, LAB and ESK), we find important points of convergence between them and with other social movements, which helps us to glimpse crucial experiences for the development of environmental policies and strategic alliances between the various social actors.

Keywords: Trade unions, Ecologism, Counterpower unionism, Union Renewal, Euskal Herria

JEL: B55, J51, Q01, Q57

* **Correspondencia a/Corresponding author:** Ignacio Messina – ignacio.messina@ehu.eus – <https://orcid.org/0009-0001-4269-9927>

Cómo citar/How to cite: Messina, Ignacio; Las Heras, Jon (2024). «Erronka eko-sozialak eta sindikalismoa: Euskal Herrian sindikatuak berritzeko aukerak?», *GIZAEOA - Revista Vasca de Economía Social*, 21, 31-48. (<https://doi.org/10.1387/gizaekoa.26254>).

Recibido: 23/4/24; aceptado: 6/5/24.

ISSN 1698-7446 - eISSN 2444-3107 / © UPV/EHU Press



Esta obra está bajo una licencia
Creative Commons Atribución-NoComercial-SinDerivadas 4.0 Internacional

1. Sarrera

Klima-aldaketak eta ekonomia deskarbonizatueterako trantsizioak areagotu egin ditzakete sindikatuak erregulazio neoliberalaren garaian barrera jasan dituzten egiturazko zailtasun nabarmenak. Europako esparruan, zailtasun horiek hainbat modutan bistaratu dira, hala nola afiliazioaren eta sindikatuen dentsitatearen murrizketan (Bryson, *et al.*, 2011), negoziazio kolektiboaren eraginkortasunaren murrizketan eta ekintza kolektiboa hain instituzionalak ez diren formekin artikulatzeko gaitasunaren galeran (Murray, 2017). Gainera, sindikatuen barne- eta kanpo-legitimitatea ahuldu da (Dufour eta Hege, 2010); eta, aurrekoek gain, gora egin du ekintza kolektiboak, bereziki grebak, langileriaren baitan koordinatzeko zailtasunak (Vandaele, 2016), besteak beste.

Erronken pilatze horrek sindikatuak berritzeari buruzko eztabaidak eragin ditu, eta luze eta zabal aztertu eta eztabaidatu dira, hainbat alderditan oinarrituta: antolaketa-prozesuetan (Frege eta Kelly, 2003), barne-demokrazian (Voss, 2010), zatiketa sozialaren aurkako borroka-modu berrietan (Hamann eta Lucio, 2003), gizarte-mugimenduekiko aliantzetan (Ross, 2008), nazioarteko borroka koordinatzeko gaitasunean eta oztopoetan (Hyman, 2005; Gumbrell-McCormick eta Hyman, 2020). Hala ere, arreta gutxi jarri zaie borroka ekologistaren testuinguruan sindikatuak berritzeko gaitasunei; salbuespenak badaude ere (adibidez, Snell eta Fairbrother, 2010; Farnhill, 2017; Hampton, 2018; Allan eta Robinson, 2022), oraindik posible da dinamika horiek ikertzen sakontzea, bereziki gutxi arakatutako euskal testuinguru sindikalari dagokionez.

Horregatik, garrantzitsua da euskal kontrabotere-sindikalismoa aztertea; izan ere, salbuespena da Europako gehiengo sindikalen barruan, berritzeko estrategia garatu baitu grebari eta gatazkari zentraltasuna emanaz, sindikatuen botere-galeraren egiturazko inertiak geldiaraziz, eta langileen afiliazioa nahiz ekintza kolektiboetako parte hartzea areagotuz, grebak barne. Horrek guztiak eragin du Euskal Herria izatea greba-kontzentrazio handiena duen Europako lurraldea (Las Heras eta Rodríguez, 2021). Era berean, euskal kontrabotere-sindikalismoak bere ekintza kolektiboak gainerako gizarte-mugimenduekin artikulatzea lortu du, gutxi aztertu diren aliantza estrategikoak sortuz, hala nola Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuna, non hainbat erakundek eta mugimenduk bat egin duten eta aldarrikapen sozialen aukera zabaldu den, proposamen ekologistak, feministak eta arrazakeriaren aurkakoak barne (Barcena, 2020).

Prozesu horiek krisi eko-sozialaren testuinguruan garatu dira, non muga planetarioen gaineko presio sistematikoa, eredu kapitalistak eta haren erreproduktzio-beharrek bultzatuta, transmuga fasera iritsi den (Herrero, 2012; Rockström *et al.*, 2009). Egoera horretan, politika neoliberal

nagusiek, hala nola 2030 Agendak eta Garapen Iraunkorrerako Helburuek (GIH), eraginkortasun falta nabarmena erakusten dute, politika horien muga handiak agerian utziz, baikortasun teknologikoa irauarazten eta garapen iraunkorra kapitalismo berdearen hedapen gisa defendatzen jarraitzen baitute. Izan ere, ugaria da garapen-eredu horren epe luzerako bidegararritasuna gezurtatzen duen ebidentzia (Martínez Alier, 1992; Naredo, 1995; Bárcena, 2005; Martínez-Oses, 2016; Saito, 2023).

Testuinguru honetan, funtsezkoa da gizakiek naturarekiko zein beste gizabanako batzuekiko duten interdependentzia aitortzea (Puleo, 2009). Gizarte-eragileek gizartean egiturazko eraldaketak bultzatu nahi dituztenean, ekin-tza-esparru bat sortzen dute, non sindikatuek eta gizarte-mugimenduek elkarrekin lan egin baitezakete ikaskuntza- eta berrikuntza-prozesu kolektibo batean, krisi eko-sozialari eta kapitalismoaren erreproduktioetik eratorritako beste ondorio batzuei aurre egiteko.

Artikulu honetan aztertuko dugu nola identifikatzen eta lotzen den euskal kontrabotere-sindikalismoa aldarrikapen ekologistekin, baita ekin-tza sindikalaren esparru horrek eraikitzen dituen aukerekin eta mugekin ere. Ikerketa esploratzaile honek –artxibo eta aldizkari sindikalen argitalpenen analisisian oinarrituta eta hainbat delegatu eta sindikalistekin batera egin diren elkarrizketa irekien ondoren (Brinkmann eta Kvale, 2018)– sindikalismoaren eta ekologiaren arteko harremana sakontzea bilatzen du euskal esparruan, etorkizuneko ikerketetarako oinarri batzuk ezartzeko bidean.

Horretarako, lehenik eta behin, berrikuntza sindikalaren esparru teorikoa garatuko dugu, ikuspegi ekologistatik begiratuta; hortaz, errebisio bibliografikoa garatuko dugu batik-bat. Bigarrenik, mugimendu sindikalaren eta ekologismoaren artikulazioa zeharkatzen duten erronkak aztertuko ditugu, adibidez, sindikatuen eta gizarte-mugimenduen arteko aliantzak garatzearen garrantzi estrategikoa ulertzeko eraiki diren hainbat zubi eta borroka-fronte. Eta, azkenik, modu sistemikoan azalduko dugu euskal kontrabotere-sindikalismoaren eta borroka ekologistaren arteko harremana, eta ELA, LAB eta ESK sindikatuen antolamendu-jarrera nagusiak bistaratuko ditugu, baita horiek batera gauzatu direla adierazten duten esperientzia berri batzuk ere. Atal honetan sindikatuek sortutako ponentzia eta dokumentuetan oinarrituko gara haien diskurtso ofiziala islatzeko. Azkenik, artikulua ondoak eta ekarpenak azalduko ditugu.

2. Sindikalismoa eta ekologismoa

Mugimendu ekologistaren eta sindikalismoaren arteko loturak ez dira oraintsukoak; sindikatuek ibilbide historikoa dute ingurumena

zaintzearen alde. Baieztapen horren oinarri dira bai lan-eremuan osasun- eta higiene-baldintzak hobetzeko hasitako borroak, bai etxebizitza duinen eta ingurune osasungarrien sustapena (Fernández Buey, 1992), eta bai laneko gaixotasun eta lesioekin lotutako eztabaidak ere, kasu askotan etorkizuneko arazo ekologikoak irudikatzen baitituzte (Riechmann, 1998). Hainbat herrialdetan, sindikatuek politika publikoari emandako babesaren bidez gauzatzen da konpromiso hori, erregulazioaren garrantzia azpimarratuz (Snell eta Fairbrother, 2010). Mugimendu ekologistak naturaren suntsiketa eta merkantilizazioa mugatzeko borrokatzen du, eta prozesu hori langileen mugimenduak giza lan-indarraren esplotazioa eta merkantilizazioa mugatzeko egin duen borroka historikoarekin aldera daiteke.

Sindikalismoak abantaila batzuk ditu gizarte-mugimenduen aldean oinarritzko baliabideetan, hala nola erabakigune politikoetan ordezkaritza izatea, borroketan eta negoziazioetan esperientzia izatea, afiliatu kopurua eta mobilizatzeko gaitasuna; mugimendu ekologistak, berriz, abantailak ditu beste alderdi batzuetan, hala nola zibilizazio-arazo berrien kontzientzia zorrotza, gizarte-arazoen pertzepzio orokorragoa, lanketa teoriko berritua eta antolaketa-modu dinamikoagoak eta parte-hartzaileagoak. Aliantzak sinergia indartsu bat sortzeko ahalmena du, desberdintasunak gainditzeko eta mugimendu gisa kualitatiboki hazteko (Riechmann, 1998). Hori garatzeko, funtsezkoa da ulertzea aliantza horrek zer garrantzi duen borondate kolektiboan, gizarte-gatazken adierazpenen eta antagonismoen islapen gisa, bai eta ahots disruptibo batzuk ere, egiturazko kausak aipatzen dituztenak eta beren gizarteak eraldatzeko agenda propioa eta autonomoak dituzten proposamenak dinamizatzen dituztenak (Herrero eta Montero, 2015).

Ildo horretan, beste gizarte-mugimendu batzuekin eta sindikalismoarekin bat egiteko estrategia bat hartzeak kapitalaren eta soldatapeko lanaren arteko tentsio klasikoa zabaltzea ekar dezake, zeina klaseen arteko borroka definitzen duen prozesua baita, eta era horretan kapitalaren eta lan egiteko modu guztien arteko kontraesana hedatu daiteke (kooperatibek eta Gizarte Ekonomia Eraldatzaileak ildo horretan egindako ekarpenak hobeto ulertzeko, irakurri Villalba *et al.*, 2023). Horrek esan nahi du planeta mugatu batean nahitaez aintzat hartu behar dela ekoizpen kapitalistaren hazkunde mugagabearen bideraezintasuna, kapitalaren eta bizitzaren beraren arteko funtsezko aurkakotasuna aitortuta (Orozco, 2014). Ikuspegi zabaldu hori funtsezkoa da aliantzen garapen estrategikorako, subjektu sozial gehiagok har baitezakete klase kontzientzia. Lan-prekarietatea, langabezia, pobrezia energetikoa, norberaren gorputzaren gaineko kontrolik eza eta kutsadurak eragindako gaixotasunak klase-esperientzia partekatua dira, pertsonen eta ekosistemen esplotazioan oinarritutako ekoizpen- eta kontsumo-eredu

baten ondorio. Erresistentziarako eta eredu alternatiboak eraikitzeko gaitasuna duten mugimendu zabalak lortzeko, klase-esperientzia zabala eta askotarikoa duen gizarte-subjektu baten nortasuna artikulatu behar da (Herrero, 2014).

Ideia hori Hymanek (2001) planteatutako komunitatearen eta sindikatuen arteko batasunaren proposamenarekin osa daiteke. Proposamen horretan, mugimendu sozialen mobilizazio- eta presio-gaitasuna nabarmentzen da, nazioarteko lehiaren eta korporazio globalen inpaktu negatiboa indargabetu baitezakete. Hymanek bi dimentsio hartzen ditu kontuan batasun horretan. Lehenengo dimentsioan, langileak kontsumitzaile eta herritar ere badirela hartzen du abiapuntutzat, eta horrek aukera ematen die sindikatuei enpleguaren eremua gaindituko duen harreman sendoa goa eraikitzeko. Bigarren dimentsioak esan nahi du langileek hainbat kontsumitzaile- eta bezero-talderentzat ekoizten dituztela ondasunak eta zerbitzuak, enpresek zatitu eta elkarren aurka jarri nahi dituzten horientzat, hain zuzen ere.

Praktika iraunkoragoetarako trantsizio-prozesuetan sindikatuek duten zeregina babestek normalean okerreko pertzepzioa desafiatzea dakar. Garrantzitsua da aipatzea sindikatuak ez direla mugimendu ekologisten aurkakoak berez (ezin dira enpleguaren eta ingurumenaren arteko dikotomia batean ainguratuta gelditu), eta ez direla mugimendu horien aliatu naturalak ere. Aitzitik, sindikatuek askotariko estrategiak erabiltzen dituzte trantsizioei dagokienez, statu quo-a mantentzeko ikuspegi errektibo eta defentsiboetatik hasi eta praktika iraunkor eta bidezkoagoetarako trantsizioak bultzatu nahi dituzten ikuspegi proaktibo eta lagungarrietaraino (Kalt, 2022). Prozesu hori ulertzeko, funtsezkoa da eragile sindikalen estrategia, interes eta mugak aztertzea.

Sindikalismoaren eta ekologiaren arteko harremanaren erronkarik konplexuenetako bat enpleguaren eta ingurumena zaintzearen arteko itxurazko kontraesanetan datza. Fenomeno hori kontrako interesen pertzepzio gisa agertzen da, non sindikatuek, erregulariki eta modu intrantsigentean, lanpostuak defendatzen dituzten; alternatiba ekologistek, berriz, enplegu «ez-iraunkorrek» ezabatzea eta ekoizpena maila «iraunkorretara» murriztea bultzatzen dezakete, bi mugimenduen arteko dikotomia sortuz. Enpleguaren eta ingurumenaren arteko elkarrekintza horrek agerian uzten du desberdintasun esanguratsuak daudela sektore ekologisten eta sindikalisten ikuspegi artean. Ingurumen-inpaktu kaltegarriak dituzten industria espeziifikoetan, adibidez, nabaria da enplegua zaintzeak baliabide naturalak babesteko premiarekin talka egiten duela. Askotan, sindikatuek lanpostuei eustea lehenesten dute, baita praktika kutsagarriak dituzten enpreetan ere, eta hori alde bakarreko proposamenetan islatzen da, laneko osasuna eta ongizatea eta osotasun ekologikoa alde batera utzita (Fernández

Buey, 1992). Hala ere, posible da itxurazko dikotomia edo kontraesan hori gainditzea.

Sindikatuak hainbat estrategia hartu dituzte eskari ekologisten inguruan, Kalt (2022) autoreak adierazi duen bezala. Kaltek lau ikuspegi nagusi proposatu ditu, krisi eko-sozialari eta ekintza sindikalaren eremuari heltzeko moduak ulertzen laguntzeko. Lehenengo strategiari «oposizio-gile» esaten zaio, eta zero emaitza ematen duen baturatzat hartzen da. Estrategia horretan, praktika ekologikoagoetarako trantsizioak enpleguaren eta industriaren itxieraren arteko gatazkatzat hartzen dira, batez ere kutsadura-indize handienak dituzten industriaren artekoak. Jarrera horren aldekoak eszeptikoak dira trantsizio horien beharri dagokionez, eta enplegua babestea lehenesten dute beste kontsiderazio batzuen aurretik. Aitzitik, estrategia «errektiboak» produkzio-eredua pixkanaka eraldatzeko beharra onartzen du, baina trantsizio motelagoen alde egiten du, langileentzako eta kaltetuetan izan litezkeen komunitateentzako bidezko planak ezartzea oinarritzat hartuta.

Bestalde, «baiezko» estrategiek modernizazio ekologikoa eta egungo esparru instituzionalen barruan enpleguak sortzea bilatzen dute. Ikuspegi horrek ekitate eta justizia handiagoa lortu nahi du egungo sistema ekonomikoaren barruan, batez ere indarrean dauden botere-egiturak zalantzan jarri gabe. Azkenik, estrategia sindikal «eraldatzaileak» kapitalismo berdearekiko jarrera kritikoa hartzen du, egungo sistema ekonomikoak ingurumen-erronkei aurre egin ezin diela argudiatuz. Estrategia horrek botere-egituretan aldaketa erradikalen alde egiten du, karbono-industria intentsiboen gaineko kontrol demokratikoa lortzeko eta jarduera horiek hala gizartearentzat nola ingurumenarentzat onuragarri izango diren sektore bihurtzeko (Kalt, 2022, pp. 502-03). Estrategia horren adibide bat euskal kontrabotere-sindikalismoaren postulatuaren baita dago, jarraian egiaztatu ahal izango dugun bezala.

3. **Berrikuntza sindikal berdea**

Lehen azaldu dugun bezala, hainbat azterlanek ikuspegi desberdinak jorratu dituzte sindikatuak berritzearen garrantziari buruz, nahiz eta berriete horren eta ekologismoaren arteko harremanari buruzkoak askoz guxtiago izan¹. Hainbat aldagai landu arren, aldagai horiek ezin dira modu

¹ Salbuespenak ere badira gure herrian; Garua eta Talaios kooperatibek, eta ELA eta LAB sindikatuak egindako ikerketa lanak azpimarratzekoak dira, baita haien artean eraikitako sinergiak ere, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuna, besteak beste. Kontuan hartzekoak dira, halaber, azkenengo urteetan egin diren honako hausnarketa hauek: <https://climatica.coop/>

isolatuan interpretatu. Gizarte-fenomenoen arteko erlazioan *osotasun* bat dago, eta, horregatik, ezin da gizarte-bizitzako ezein arlo modu isolatuan behar bezala aztertu. Horrek esan nahi du gizarte-harremanak dinamikoak direla, prozesu eta ekintza historikoen ondorio direla eta, era berean, etorkizuneko garapenaren potentziala beren baitan dutela (Hyman, 1981). Horrek laguntzen digu ulertzen zein garrantzitsua den berrikuntza-estrategiak aztertzea, ez modu isolatuan, baizik eta modu interkonektatuan eta prozesu kontraesankor gisa.

Testuinguru horretan, berritzeko tresna gisa azaleratzen zaigu borroka ekologista, eta aztertu beharreko aldagaien espektro zabal bat hedatuz. Sindikatuen aldetik aldarrikapen ekologista berriak dituzten ekintzak garatzeko eta indartzeko berezko potentzialak berrikuntzarako aukera-arloen prozesu bat erakusten du, eta horien artean honako hauek nabarmendu daitezke: (i) langileen identitate kolektiboak indartzeko gaitasuna (Murray, 2017); (ii) ekintza sindikala legitimizatzeko tresna bat (Dufour eta Hege, 2010); (iii) botere-baliabide berriak garatzeko aukera bat trantsizio ekologikoko prozesuen bidez (Kalt, 2022); (iv) beste sindikatu, gizarte-mugimendu eta estatu-erakunde batzuekin aliantzak garatzeko espazioak eraikitzea (Snell eta Fairbrother, 2010); eta (v) lan-eremuetan ordezkartza sindikala sustatzea ordezkari sindikal berdeen bidez, «green shop stewards» gisa ere ezagunak (Hampton, 2018).

Prozesu hori sindikatu-afiliazioaren arloko zailtasunei dagokienez ere har dezakegu kontuan. Hori da, hain justu, berrikuntzaren ikuspegitik azter dezakegun aldagaietako bat. Zenbateraino esan dezakegu sindikatuak politika ekologistak garatzeak afiliatu gehiago erakar ditzakeela? Garrantzitsua da nabarmentzea, klima-egoeraren aurrean gero eta interes sozial handiagoa dagoen arren, horrek ez duela automatikoki bermatzen sindikatuen parte-hartzea handituko denik eztabaida horietan. Kontuan hartu behar da, halaber, horrek ez diela sektore guztiei berdin eragiten (Farnhill, 2017, p. 3); ondorioz, krisi klimatikoarekiko sentsibilitatea eta ekintza sindikalaren esparrua sektorearen arabekoak dira. Sindikatuen aliantza estrategikoen politikan bezala, ekintza sindikala ekintza ekologistarekin artikulatzen duten esperientziek esparru egokia sor dezakete elkarrekin integratzeko eta hazteko.

Interes sozial hori injustizia sentimendu batean oinarritzen delako premisatik abiatzen bagara, Kellyk (1998, 2005) azaldutako tesiei buruz go-goeta egin dezakegu, non

transformaciones-ecosociales-euskal-herria/; <https://www.ela.eus/es/noticias/ela-publica-un-documento-con-propuestas-para-una-transicion-ecologica>; <https://mrafundazioa.eus/eu/dokumentazio-zentrua/liburua/eraldaketak-sindikalismoa-eta-ekonomia-soziala>

bidegabekeria-esparruak funtsezkoak dira antolakuntzarako eta ekintzarako, mendeko kideak talde nagusiekiko leialtasunetik bereizteko prozesua hasten baitute (Kelly, 1998, p. 29).

Bidegabekeria-zentzua eskuratzeko prozesu horrek funtsezko beste bi aldagai dakartza berekin. Alde batetik, egozpena, hau da, gertaera edo ekintza bat azaltzea, arrazoiak, kausak edo biak kontuan hartuta (Ibid, p. 30); adibidez, langile-kolektibo batek bere enplegatzaileari erantzukizuna esleitzea (errua egoztea) ibaia kutsatzeagatik. Beste alde batetik, identifikazio soziala, kanpoko talde baten aurka beste talde bateko kide izatearen sentimendua dakarrena. Prozesu horietan, liderrek funtsezko zeregina betetzen dute, eta bidegabekeriak kokatzeko gaitasuna dute, eragile espezi-fikoei egozteko eta taldearen nortasuna sustatzeko (Holgate *et al.*, 2018). Ildo horretan, sindikatuek berebiziko garrantzia izan dezakete bidegabekeriak bideratzen dituzten gizarte-eragile gisa.

4. Kontrabotere-sindikalismoa klabe ekologistan

Kontrabotere-sindikalismoaren kategoria 1990eko hamarkadan ELAk izandako aldaketa estrategikoaren ondorioz sortu zen arren (Letamendia, 2004; Las Heras, 2019), lantokietan konfrontazioa lehenesten duen eredu sindikal baten nortasun-bereizgarri gisa ezartzen da, elkarriketa sozialarekiko jarrera kritikoa hartzen du eta grebaren eta negoziazio kolektiboaren bidez ekintza sindikala erraztuko duen antolaketa-eraldaketa bilatzen du (ikus Elorrieta, 2017; Las Heras eta Rodríguez, 2021, pp. 12-13; Las Heras eta Roca, 2023). Euskal Herrian, eredu sindikal hori bi sindikatu nagusiek (ELAk eta LABek) eta ESK-k ordezkatzen dute (Las Heras *et al.*, 2022). Hala ere, horrek ez du esan nahi erakunde horiek ekintza sindikalaren eredu uniforme adierazten dutenik, desberdintasun programatikoak baitaude euskal kontrabotere-sindikalismoaren barruan, gizarte-erakunde gisa duten praktikan tentsioak eta kontraesanak islatzen dituztenak. Azterketa honetarako ezarritako helburuen testuinguruan, kontrabotere-sindikalismoak ideia-multzo ez-homogeneo eta ekologista bat nola garatzen duen aztertuko dugu, non gizarte-mugimenduekiko aliantza estrategikoei, oro har, eta ekologismoarekiko aliantza estrategikoei, bereziki, funtsezko zeregina ematen dien, lurraldearen eraldaketa sozialerako aukera berriak sortuz.

Hiru sindikatuak aztertzekeo abiapuntu gisa, garrantzitsua da argitzea hiru sindikatuok bat datozela bizi dugun krisi eko-sozialaren diagnostikoan, non sistema kapitalista baita erantzule nagusia (ELA, 2023; ESK, 2019; LAB, 2021). Jarraian, sindikatu bakoitzaren jarrera politikoak ga-

ratuko ditugu, proposamenei eta eraikuntzei dagokienez. Helburua ez da erabateko diagnostiko bat aurreratzea edota sakontzea, sindikatu bakoitzak ekologiarekin lotutako ekintza sindikalen esparruan zer dioen eta zein proposamen bereizgarri egiten dituen azaltzea.

4.1. *ELA*

Bere printzipioetan, ELAk argi eta garbi dio krisi eko-sozialak leku nabarmena duela bere agenda sindikalean (ELA, 2021). Aitortzen du, hurrengo hamarkadetan planetaren suntsiketa eta merkantilizazio hazkorra gelditzeko borrokak garrantzi historiko handia izango duela, soldatapeko langileen esplotazioa mugatzeko langile-mugimenduaren sorrerak izan zutenaren parekoa. Beraz, aberastasunaren banaketari buruzko eztabaidaz gain, sindikatuak Euskal Herriko ekoizpen ereduari buruzko eztabaida bat zuzenean jorratzea proposatzen du. Ildo horretan, ELA bat dator funtsezko posizioarekin: jarduera ekonomikoaren helburua pertsona guztien ongizatea izan behar da, dimentsio guztietan: fisikoan, psikologikoan, lanekoan, sozialean eta ingurumenekoan (ELA, 2011).

Krisi eko-sozialaren aurrean, ELAk ibilbide-orri bat proposatzen du (ELA, 2023): (i) materia eta energia kontsumoa murriztea, justizia globalaren irizpideetan oinarrituta. (ii) Energia-sektorea berrantolatzea energia berriagarriak bultzatuz. (iii) Ekonomia birkokatzea, tokikoa eta zirkularra den kontsumoa eta ekoizpena sustatuz. (iv) Garraio-sistema eraldatzea, garraio publikoa eta kolektiboa bultzatuz. (v) Elikadura-subiranotasuna gartzea, agroekologiari eta basogintzari zentraltasuna emanez. (vi) Ekonomia berregituratzea, zaintza eta bizitzaren iraunkortasuna erdigunean jarriz eta zaintza lan feminizatuak banatuz. (vii) Aberastasuna banatzea eta lanaldia murriztea. (viii) Oinarrizko zerbitzuak desmerkantilizatzea, osasuna, hezkuntza eta beste zerbitzu publiko batzuk bermatuz.

Ekintzarako esparru hori osatu egiten da enpleguari dagokionez, eta ELAk eraldaketa handi baten alde egiten du, enpleguak lekuz alda daitezen baliabide naturaletan eta energian intentsiboak diren industrietatik hain intentsiboak ez diren sektoreetara, eta, era berean, gutxi garatuta baina iraunkorrek diren sektoreetan enplegu iraunkorra sor dadin, «enplegu berdea» sustatuz. Enplegu horiek funtsezko zeregina betetzen dute ekonomiaren trantsizio ekologiko eta sozialean, kontsumoa eta kutsadura murrizteko ekoizpen-orientazioari zein langabeziaren eta gizarte- eta ekonomia-bazterketaren aurkako borrokari helduz. ELAk «enplegu berdeak» ingurumen-inpaktuak zuzendu eta arintzen dituzten jarduera gisa definitzen ditu, baliabide naturalak modu iraunkorrean erabiliz (ELA, 2014). ELAk uste du eraldaketa hori zaintzaren sektoreari balioa emanez egin

behar dela, ezinbesteko eta ikusezin bihurtutako sektorea baita, bizitzari eusteko nahitaezkoa (ELA, 2023). Horrek esan nahi du sindikatuak trantsizio bat bultzatzen duela:

[...] egungo sistema kapitalista, heteropatriarkal, arrazista, kolonialista eta ekozidatik, bizitzak eta zaintzak erdigunean jarriko dituen eredu sozial, feminista, arrazakeriaren aurkako eta eko-sozialistara. Eta hori, jakina, erronka bat da sindikatuarentzat berarentzat ere. [...] Trantsizioak lan-munduari bizitzaren iraunkortasunetik begiratzea dakar; beraz, lanaren (eta enpleguaren) eta prekaritatearen kontzeptuak zalantzan jartzea eta berrikustea eskatzen du, kapitalaren eta lanaren arteko gatazka beste gatazka handiago baten barruan kokatuz, zeinak kapitala eta bizitza aurrez aurre jartzen dituen (ELA, 2021, p. 20).

Aliantza estrategikoei dagokienez, ELAk ezinbestekotzat jotzen du klima-aldaketaren aurka borrokatzen duten erakundeekin batera lan egitea, produkzio, erreprodukzio, banaketa eta kontsumo iraunkorragorako trantsizio justua bultzatzeko. Aitortzen du arazoa ez dela soilik etorkizuneko belaunaldientzat, baita gaur egungoentzat ere, eta erabateko aldaketa behar dela ingurumenarekin dugun harremanean. Horrek esan nahi du aldaketarako botere soziala eraiki behar dela, gizarte- eta ingurumen-justiziaren ikuspegitik, mugimendu klimatiko, sozial, sindikal eta feministen borroka bateratuz (Muñoz, 2016).

4.2. LAB

LABek, sindikatu sozialista gisa definituta (LAB, 2018, p. 8), kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka jarri du eztabaidaren erdigunean, zeinak gizarte garaikidean esplotazio-maila askotarikoak hartzen dituen. Klasearen eta generoaren esplotazioaz gain, arraza-, sexu- eta jatorri-diskriminazioa ere aipatzen ditu, batez ere harreman ekonomiko heteropatriarkaletan. Testuinguru horretan, sindikatuak dio garrantzitsua dela ulertzea pertsonak interdependenteak eta ekodependenteak garela, baina kapitalak gure denborak eta jarduerak beraren beharren arabera antolatzea behartzen gaitu, Lurrari etengabe eraso eginez, ezaguna zaigun emaitza eraginez: «kapitalarentzako aberastasuna, emakume eta gizon langileentzako bizitza prekariora» (LAB, 2017, p. 42).

Egoera horren aurrean, gizarte-, ekoizpen- eta kontsumo-eredu berri bat eraikitzea planteatzen du (LAB, 2017). Eta, ildo horretan, subiranotasunaren aldeko borroka eginkizun garrantzitsua betetzen du alternatiba horien garapenean. Prozesu horrek «gure bizitza, gorputz eta herria-

ren etorkizunari buruz erabaki ahal izatea» esan nahi du (Larrañaga, 2020). Ildo horretan, proposamen eko-sozialista eta feminista bat egitea errotuta dago komunitateak gizartean aldaketa bat lortzeko borrokan duen protagonismoan (LAB, 2017).

Enpleguari eta trantsizio ekologikoari dagokienez, LABek baztertu egiten du bi kontzeptu horiek aurrez aurre jartzen dituen ustezko dikotomia, eta langile bakar bat ere babesik gabe utziko ez duen trantsizioa proposatzen du; eta, horretarako, irtenbide kolektiboak bultzatu beharko dira: lanaldiaren murrizketa, aurre-erretiroak, etengabeko prestakuntza, sektoreak eraldatzeko planifikatutako ibilbide-orria, funts publikoak eta solidarioak, enplegua beste enplegu bat izanda gal dezaketenen bizi-baldintzak bermatu ahal izateko, etab. (Lopetegi, 2022).

Trantsizioari aurre egiteko, LABek Bidezko Trantsiziorako Batzordeen figura proposatzen du, ekonomia iraunkorrago baterako trantsizio-prozesuan langileen parte-hartzea eta esku-hartze zuzena bermatzeko ekimen esanguratsua baitira. Batzorde horiek plataforma bat eskaintzen dute langileek, bereziki eraldaketa ekonomikoek gehien erasandako sektoreetan, hitza eta botoa izan dezaten beren bizitzei eta bizirauteko bitartekoei eragiten dieten erabakietan. Garrantzitsua da azpimarratzea LABek onartzen duela enpleguaren babesari eta zenbait jarduera ekonomikoren inpaktu ekologikoari heldu behar zaiela. Ikuspegi orekatu horrek, ingurumenaren iraunkortasuna ziurtatzeaz gain, langileen bizi eta lan baldintzak babestuko dituzten konponbideak aurkitzearen garrantzia azpimarratzen du (Lopetegi, 2022).

LABek Bidezko Trantsiziorako Batzordeak ezartzeko egindako proposamenak ikuspegi integrala du ekonomia iraunkorrago baterako trantsizioarekin lotutako erronkei heltzeko. Batzorde horiek alderdi interesdun guztien ordezkaritza izango lukete, eta berebiziko garrantzia izango lukete eraldaketa ekonomikoaren plangintzan eta betearazpenean. Hainbat alderdi interesdun biltzen direnez, batzordeek funtsezko gaiei buruzko erabakiak hartzeko lankidetzeta eta adostasuna erraztu dezakete, hala nola lehenetsunez landu beharreko jarduera ekonomiko kutsakorrek eta jasanezinak identifikatzea, sektore estrategikoen jabetzarako estrategiak garatzea eta desjabetze-prozesuak bideratzea. Batzorde horiek toki-, eskualde- eta sektore-mailan sortzeak esparru bat eskainiko luke ekonomia iraunkorrago baterako trantsizioa gauzatzeko beharrezkoak diren ekin-tzak eraginkortasunez koordinatzeko, langileen parte-hartze aktiboa bermatuz eta, horrela, guztiontzako trantsizio justu eta ekitatezkoa bultzatuz (LAB, 2021).

Azkenik, LABek gizartearen eta ekologiaren aldetik defizitarioak diren arloetan deshazkundearen ikuspegia hartzearen alde egiten du, eta, aldi berean, bizitzari eusteko estrategikoak diren sektoreetan hazkundea sustatzen

du. Sei arlo nagusi identifikatzen ditu: lurraren eta lurraldearen antolaketa, zaintza, osasuna, ezagutzaren arloa, teknologikoki garatutako industria-sektoreak eta oinarrizko zerbitzu publiko komunitarioak (LAB, 2021).

4.3. ESK

ESK sindikatuak, hasieratik, hainbat frontetan garatu du aktibismoa, hots, «militantzia integral» baten aldeko apustua egin du (Las Heras, et. al, 2022, p. 12); esaterako, mugimendu ekologistan eta Lemoizko zentral nuklearraren aurkako hainbat borrokatan parte hartu du. Sindikatuak aldarrikapen ekologistekin duen artikulazioan adierazten den kosmobisio hori mantendu eta sakondu egin da azken urteetan, kideak bat baitatuz krisi eko-sozialaren diagnostikoa egitean eta sindikatuak trantsiziorako tresna baliagarriak direla nabarmentzean (ESK, 2013, 2019).

Horiek horrela, ESK-k azpimarratzen du premiazkoa dela gizakiek elkarrekin eta planetarekin harremanak izateko duten modua errotik aldatzea. ESK-n diotenez, eko-mendekoak gara, naturaren parte baikara, eta baliabideak, bizitzak bezala, mugatuak dira, muga horiek aitortzearen eta horren arabera jokatzearen garrantziaz ohartaraziz, gure interdependentzia ere aitortuz, beste pertsona batzuk behar baititugu gure bizitzari eusteko. ESK-k paradigma aldaketa bat proposatzen du, non ekonomia bizitzan zentratuta egongo den eta ez merkatuetan, COVID-19aren pandemiaren esperientziatik ikasgaiak hartuz funtsezkoaren eta alferrikakoaren artean bereizteko. Bizitzarekin eta haren zaintzarekin soilik lotutako produktioaren alde egiten du, sozialki beharrezkoak eta ekologikoki iraunkorrak diren ekoizpenak lehenetsiz gutxi batzuen onura ekonomikoen gainetik (Arian, 2023, p. 7).

Ildo horretan, ESK-k paradigma sozial berri bat proposatzen du, bizitzeko modua eta kontsumitzeko eta ekoizteko moduak muga naturalekin bat etorri berrikusiko dituen, baina baita bere lurraldeko eta planeta osoko pertsonentzat modu bidezkoan ere (ESK, 2013). Itun sozial eta sindikal bat bultzatu nahi du egungo egoerari aurre egiteko, bizitza berreskuratze beharra erdigunean jarritz. Ikuspegi honek logika sozialak edo ekonomikoak gaintitzen ditu, ESK-k planetako biziraupena bere borrokaren parte dela ulertzen baitu (Arian, 2020, p. 7).

Helburu hori lortzeko, proposamenetako bat enpleguak gizarte-antolaketa duen zeregina deskralizatzea da (Arian, 2019, p. 6). Kapitala denez enplegua behar duena, eta ez gizartea, ESK-k enpleguaren egungo espazioari buruz hausnartzea proposatzen du:

Arlo materialean enpleguarekiko menpekotasunik ez izateak bidea erraztu lezake langileok trantsizio ekologikoaren aurrean elementu erreakzionarioa ez izateko, baizik eta norabide horretako eragile aktiboa izateko, bai edo bai iritsiko den trantsizioa sozialki onargarriak diren parametroetan gerta dadin, hau da, trantsizio eko-sozialista gauza dadin (ESK, 2019, p. 12).

Horren aurrean, ESK-k ekoizpen eredua aldatzea proposatzen du, ekoizpen iraunkorrean oinarrituz eta ez kontsumoan, trantsizio eko-sozialista baten aldeko apustua eginez. Honako hauek nabarmentzen dira: (i) aberastasunaren erabateko banaketa, diru-sarreraren arloko desberdintasun-mailen eta horien ondorioen aurrean, zerga-politikaren eremuko aldaketak; (ii) soldatapeko lan-denboraren murrizketa eta banaketa; (iii) etxeko eta zaintzako lanen banaketa, bizitza mantentzeko eta erreproduzitzeko zaintza-lanak duen garrantzia gorabehera, lan hori ikusezina delako eta bidegabeki banatuta dagoelako gizonen onurarako; (iv) baldintzarik gabeko oinarritzeko errenta ezartzea, pertsona guztientzako bizitza duina garatzea ahalbidetuko duena (ESK, 2019).

4.4. *Baterako ekintzak*

Euskal gizarte-mugimenduak antolakuntza-sare sakona garatzen ari dira duela hamarkada batzuetatik hona, esperientzia metatuz eta bizitasun handia adierazten duten ekintza politikorako gaitasuna eratuz (Barcena eta Ajangiz, 2011). Prozesu hori hainbat gizarte-borrokatan islatzen da, hala nola euskararen aldeko borrokan, feminismoaren defentsan, militarismoaren aurkako lanean nahiz ingurumenaren aldeko ekimenetan (Barcena, 2020). Azken hamarkadan, prozesu horiek gizarte-mugimenduen eta horien borrokan antolaketa-konbergentzia adierazten duten hainbat plataformek bideratu dituzte. Nabarmentzekoa da Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuna, 2013an sortua eta 145 erakunde biltzen dituen, besteak beste, ELA, LAB, ESK eta STEILAS HIRU sindikatuak.

Testuinguru horretan, hainbat ekintza kolektibo garatu dira, euskal kontrabotere-sindikatuaren eta mugimendu sozial ekologisten bizikidetzeta eta ugaritzea ageria uzten dutenak. Nabarmentzekoak dira mugimendu ekologista antolatu bat bistaratzen duten kanpainak, azken bost hamarkadetan agenda iraunkorra mantendu dutenak. Kanpaina horien artean daude Lemoizko zentral nuklearraren aurkako borrokak, Leitzarango autobia-aren aurkako oposizioa, Itoizko urtegiaren aurkako erresistentzia, AHTren aurkako gaitzespena eta fracking-aren aurkako kanpaina. Borroka horiek, Euskal Herriko gizarte-mugimenduen artikulazioa adierazteaz gain, age-

rian uzten dute sindikatuek agenda ekologista bultzatzen dutela eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, beren lurraldea zeharkatzen duten gatazka eko-sozialetan parte hartzen dutela.

Dinamika horien beste adierazpen bat nazioarteko topaketa eko-sozialak izan ziren, hainbat gizarte-erakundek parte hartzen duten zeharkako gune bat. Hirugarren edizioan, ELA, LAB eta ESK sindikatuek, besteak beste, sinatutako azken manifestuak lagundu egiten digu ulertzen zer-nolakoa den sindikatu horiek bai diagnostikoaren inguruan bai proposamenen arloan ere duten adostasun-markoa. Adierazpen horrek kapitalismoa kritikatzeko du dirutan neur daitekeen balio ekonomikoan soilik zentratzeagatik, naturaren eta giza zaintzaren funtsezko mendekotasunak alde batera utzita. Adierazpenak dioenez, irabazi pribatuen bilaketan eta hazkunde etengabe eta mugagabe oinarritutako eredu ekonomiko batean bizi gara, planetaren muga biofisikoekin talka egiten duena, eta horrek ekozidua eta larrialdi ekologikoa dakartza, eta, gainera, milioika ingurumen-errefuxiatu eragiten ditu. Nazioarteko goi-bilerak gorabehera, kapitalismoak ez dio irtenbide eraginkorrik eskaintzen klima-aldaketari, eta baliabide naturalen eta energia berriztagarrien ustiapena betikotzen du.

Proposamen gisa, manifestuak erabateko aldaketa bultzatzen du eko-sozialismorantz, pertsonen oinarritzko beharrak lehenetsiz eta planetaren mugak errespetatuz. Aldaketa horrek berekin dakar kapitalismo berdea baztertzea, zeinak egitura ekonomiko eta kontsumo-egitura berberei eusten dien. Trantsizio justu eta iraunkorra behar da, aberastasuna eta lana birbanatuko dituen, genero-berdintasuna sustatuko duena, komunitateak ahaldunduko dituen eta guztiontzako bizi-baldintza duinak eta autonomoak bermatuko dituen. Sinatzaileek honako konpromiso hauek hartu dituzte: kontzientzia eko-sozialista eta feminista zabaltzea, nazioarteko sareak sortzea, hainbat gizarte-eragilerekin lankidetzan aritzea, trantsizio eko-sozialen aldeko lege-proposamenak bultzatzea, ingurumen-narriaduraren eta nazioarteko itun kaltegarrien aurka borrokatzea, ekonomia demokratikoko eta kontsumo arduratsuko esperientziei eustea, eta gure eguneroko bizitzan aldaketak sustatzea sinpletasunerantz eta elkartasunerantz.

Beste adibide argigarri bat Mecaner enpresan izandako esperientzia da. Stellantis taldeko enpresa bat da, eta artikulu hau idazteko unean gatazka ireki batean dago, hiru sindikatu (ELA, LAB, ESK) bat eginda baitaude enpresak lantegia Euskal Herrikan kanpo deslokalizatzeko duen jarreraren aurka borrokan. Horrek enpresa ixtea eta 148 langile kaleratzea ekarriko luke. Gatazka honetan bereziki interesatzen zaiguna fabrikarako trantsizio eko-sozialeko plan bat bultzatzeko proposamena da, Mecaner enpresako enpresa-batzordeak sustatua eta Garua kooperatibaren parte-hartzearekin. Plan horretan hainbat produkzio-alternatiba proposatzen dira, fabrikaren egungo gaitasunetan, birmoldaketaren bideragarritasun teknikoan eta

beharrezko inbertsioaren zenbatespen batean oinarrituta, guztia irizpide eko-sozialen barruan. Kasu honek artikuluan garatzen ari garen postulatu-entzati handi bat adierazteko ahalmena du, Euskal Herriko ekoizpen-sarearen defentsa egiten baitu, baina trantsizio eko-sozialeko irizpideen bidez. Ez da enpleguaren defentsa klasikora mugatzen, baizik eta sindikatuak greba mugagabea egiten ari dira ekoizpen-eraldaketarako proposamenarekin, diferentzia taktikoak izan arren; eta hori baliagarria izan daiteke epe laburrean gainerako industrietan gerta daitekeenaren adibide gisa, ez bakarrik Euskal Herrian, baita Europa osoan ere.

5. Ondorioak

Kontrabotere-sindikatuak agenda ekologista baten bidez sindikatuak berritzeko dituzten aukerei buruzko esplorazio-ibilbide honi esker, argi uler dezakegu sindikatu horiek Euskal Herrian ekintza sindikalerako dituzten esparru estrategikoen lan-eremuetako aldarrikapenak gainditzen dituztela eta sindikatuak gizartea eraldatzeko gizarte-eragile gisa kokatzen dituztela. Puntu horrek kontrabotere-sindikalismoaren definizioa indartzen du (Las Heras eta Rodríguez, 2021), agenda ekologistarekin duen irismena handituz eta gizarte-mugimenduekiko aliantzen apustu estrategikoa azpimarratuz.

Prozesu hori salbuespenezko esparru batean garatzen da Europa mailan; izan ere, sindikatu horiek gehiengo sindikal bat adierazten dute, trantsizio eko-sozialista baten alde dagoena. Krisi eko-sozialaren diagnostikoa eta haren jatorria ez ezik, estrategia «eraldatzaile» baten aldeko apustua ere partekatzen da (Kalt, 2022), eta horrek esan nahi du sistema kapitalistari kritika irekia egiten zaiola eta Euskal Herriaren barruan ekoizpen-, kontsumo-, energia-, mugikortasun- eta zaintza-sistema berrantolatu behar dela.

Hor azaldutako esperientziek sindikatuen posizionamenduak kokatzen laguntzen digute, batzuetan esparru estatikoetan eror daitezkeenak, eta aldarrikapen ekologisten garapenean sindikatuak berritzeko aukerak daudela berresten dute. Batez ere Euskal Herriko gizarte-sare sendoaren aurrean (Barcnas, 2020), gizarte-mugimenduen arteko elkarrekintzak ikaskuntza kolektiboen eta hobekuntza kualitatiboen aukera-esparrua sor dezake praktikan (Fairbrother, 2008).

Garrantzitsua da aitortzea egin dugun azterketa honek, esploratzaile eta mugatua bada ere, kontrabotere-sindikalismoari buruzko eztabaida aberasten laguntzen duela, bai eta aldarrikapen ekologistak agendan sartzeak eskaintzen dituen aukerak bistaratzea ere. Euskal errealitatea aztertzeko esparrua zabaltzen du, sindikatuen eta beste gizarte-mugimendu ba-

tzuen arteko elkarrekintzak eta haien eskaeren irismena kontuan hartuta. Azken batean, Euskal Herriko dinamika sozialen eta eraldaketa-aukeren ulermenean sakontzeko tresna gisa balio du.

6. Aldizkari sindikalak eta Kongresuak

- Arian (2019) N°158
- Arian (2020) N°159
- Arian (2023) N° 161
- ELA (2011) Asumimos el reto; declaración del centenario. Comité Nacional de ELA
- ELA (2021) Ponencia 15º Congreso
- ELA (2023) Propuestas de ELA para la transición ecosocial de la economía de Hego Euskal Herria
- ESK (2013) Asamblea General IV
- ESK (2019) Asamblea General V
- LAB (2017) Ponencia político sindical
- LAB (2018) Estatutos
- LAB (2021) Programa socio-económico
- Talaia (2022) N°14
- Talaia (2020) N°8

7. Bibliografía

- Allan, K., eta Robinson, J. (2022). Working towards a green job?: Autoworkers, climate change and the role of collective identity in union renewal. *Journal of Industrial Relations*, 64(4), 585-607.
- Barcena, I. (2020). Lila, rojo y verde juntos. Debates y prácticas ecosocialistas feministas en Euskal Herria (1990-2020). *e-cuadernos CES*, (34).
- Barcena, I., eta Ajangiz, R. (2011). Basque Social Movements: Euskara, Feminism and Environmentalism. *Basque Political Systems*. Reno: University of Nevada, 219-234.
- Brinkmann, S. eta Kvale, S. (2018) *Doing interviews (Vol. 2)*. Sage.
- Bryson, A., Ebbinghaus, B., eta Visser, J. (2011). Introduction: Causes, consequences and cures of union decline. *European Journal of Industrial Relations*, 17(2), 97-105.
- Dufour, C., eta Hege, A. (2010). The legitimacy of collective actors and trade union renewal. *Transfer: European review of labour and research*, 16(3), 351-367.

- Elorrieta, J. (2017) *Una mirada sindical contracorriente. Clase, territorio y nuevas alianzas*. Barcelona: Icaria.
- Fairbrother, P. (2008). Social movement unionism or trade unions as social movements. *Employee Responsibilities and Rights Journal*, 20, 213-220.
- Francisco Buey, F. (1992). Programas sindicales, intereses obreros y reivindicaciones ecológicas en la lucha por un mundo habitable. *Cuadernos de Relaciones Laborales* 1, 221-243
- Frege, C. M., eta Kelly, J. (2003). Union revitalization strategies in comparative perspective. *European Journal of industrial relations*, 9(1), 7-24.
- Hamann, K., eta Martinez-Lucio, M. (2003). Strategies of union revitalization in Spain: Negotiating change and fragmentation. *European Journal of Industrial Relations*, 9(1), 61-78.
- Hampton, P. (2018). Trade unions and climate politics: Prisoners of neoliberalism or swords of climate justice?. *Globalizations*, 15(4), 470-486.
- Herrero, Y. (2012). Vivir bien con menos, ajustarse a los límites físicos con criterio de justicia. Manu Robles-Arangiz Institutua
- Herrero, Y. (2014). Economía ecológica y economía feminista: un diálogo necesario. Con voz propia. *La economía feminista como apuesta teórica y política*, 219-237.
- Herrero, Y., eta Montero, J. (2015). No sin los movimientos. *Viento sur: Por una izquierda alternativa*, (143), 50-57.
- Holgate, J. (2021). Trade unions in the community: Building broad spaces of solidarity. *Economic and Industrial Democracy*, 42(2), 226-247.
- Hyman, R. (1981). *Relaciones industriales, una introducción marxista*. Blume Ediciones. Madrid
- Hyman, R. (2005). Shifting dynamics in international trade unionism: Agitation, organisation, bureaucracy, diplomacy. *Labor History*, 46(2), 137-154.
- Hyman, R., eta Gumbrell-McCormick, R. (2020). (How) can international trade union organisations be democratic? *Transfer: European Review of Labour and Research*, 26(3), 253-272.
- Larrañaga, E. (2020). Necesitamos transformar la realidad construyendo un nuevo modelo que ponga la vida en el centro. *Talaia*, N°8.
- Las Heras, J. (2019). To sign or not to sign? Union strategies towards provincial metal sector agreements in the Catalan and Basque automotive industries. *European Journal of Industrial Relations*, 25(2), 181-200.
- Las Heras, J., eta Rodríguez, L. (2021). Striking to renew: Basque unions' organizing strategies and use of the strike-fund. *British Journal of Industrial Relations*, 59(3), 669-700.
- Las Heras, J., Messina, I., eta Renteria-Uriarte, X. (2022). The formation of Ezker Sindikalaren Konbergentzia: radical unitary unionism in the Basque Country and Navarre. *Labor History*, 63(6), 705-724.
- Letamendia, F. (2004). ELA, 1976-2003: sindicalismo de contrapoder. Fundación Manu Robles-Arangiz Institutua.

- Lopetegui, O. (2022). Hacia una transición liderada por los trabajadores. *Talía*, N°14.
- Martínez Alier J. (1992). *De la economía ecológica al ecologismo popular*, Icaria
- Martínez Osés, PJ. (2016). La Agenda 2030: Contradicciones, transformaciones y resistencias. *Centro de Documentación Hegoa, boletín de recursos de información* n°49
- Muñoz, T. (2016). Cambio climático y el papel del sindicalismo. *Boletín de medio ambiente ELA* Núm. 37, págs. 7-10
- Murray, G. (2017). Union renewal: what can we learn from three decades of research?. *Transfer: European Review of Labour and Research*, 23(1), 9-29.
- Naredo, JM. (1995). *De la economía a la ecología; Repensar la economía desde el medio ambiente*, Editorial Trotta
- Orozco, A.P. (2014). *Subversión feminista de la economía: aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*. Madrid: Traficantes de sueños.
- Riechmann, J. (1998) *Trabajar sin destruir, trabajadores, sindicatos y ecologismo*, HOAC
- Rockström, J., Steffen, W., Noone, K., Persson, Å., Chapin III, F. S., Lambin, E., ... eta Foley, J. (2009). Planetary boundaries: exploring the safe operating space for humanity. *Ecology and society*, 14(2).
- Ross, S. (2008). Social unionism and membership participation: What role for union democracy? *Studies in Political Economy*, 81(1), 129-157.
- Saito, K. (2023). *Marx in the Anthropocene: Towards the idea of degrowth communism*. Cambridge University Press.
- Snell, D., eta Fairbrother, P. (2010). Unions as environmental actors. *Transfer: European Review of Labour and Research*, 16(3), 411-424.
- Puleo, A. (2009). Ecofeminismo: la perspectiva de género en la conciencia ecologista. *Claves del ecologismo social*, 169-172
- Vandaele, K. (2016). Interpreting strike activity in western Europe in the past 20 years: the labour repertoire under pressure. *Transfer: European Review of Labour and Research*, 22(3), 277-294.
- Villalba-Eguiluz, U., Sahakian, M., González-Jamett, C., eta Etxezarreta, E. (2023). Social and solidarity economy insights for the circular economy: Limited-profit and sufficiency. *Journal of Cleaner Production*, 418, doi:10.1016/j.jclepro.2023.138050.
- Voss, K. (2010). Democratic dilemmas: union democracy and union renewal. *Transfer: European Review of Labour and Research*, 16(3), 369-382.